

“Hatzen artean ihes egiten duen denbora”: Luis M. Mansilla in memoriam

“Susmatzen dut espazioak, berez, ez dituela gure bizitzaren ardua nagusiak osatzen; denborak bakarrik, zein harrapatzen saiatzen garenean, hatzen artean ihes egiten duen” – Luis M. Mansilla

Laura Martínez de Guereñu °



*Aldiri, 2012, III, 11, 30–31 ISSN 1889-7185
Jasotze-data: 2012-07-30 / Onarpen-data: 2012-09-16*

2006ko udaberrian, Luis M. Mansilla eta Emilio Tuñón Harvard Unibertsitateko Graduate School of Design arkitektura-eskolan proiektuak irakasten zeuden. Bitartean, doktoretzatesiaren idazkera bukatzen ari nintzen ni eta, aldi berean, Rafael Moneoren Arkitekturaren Kritika irakasgaian laguntzen. Arratsaldeko saioaren aurretik eta zenbait testu astun irakurri ondoren, bertan ager zitezkeen —eta nahitaez garatu beharko genituzkeen— ideiei buruz aurrerapenez hitz egiteko, eskolatik gertu gelditzen den “Café Pamplona”-ra joaten ginen askotan *sandwich* arin bat jatera. Batzuetan, Mansilla eta Tuñón etortzen ziren gurekin; Rafael, Luis, Emilio... ni hor txiki-txikia sentitzen nintzen, eta, noski, hainbeste kontu interesgarrien artean, gelan ukitu behar genituen ikasgaiei buruz hitz egiteko ez zitzaigun denbora askorik gelditzen. Horrela, urduritasun nabarmenez bueltatzen nintzen berriro eskolara, Moneok seminarioan nondik nora joko ote zuen argi jakin gabe eta jardunaldi horretan izan nezakeen ekarpena bat-batean osatu beharko nuela burutik kendu gabe.

Udaberri berean, Londreseko aireportuan bat egin genuen, Luis eta Emiliok Madriletik, nik Bilbotik, Bostonera zihoan British Airways-a hartzeko prest. Bertara iristean, Bostoneko poliziaek denbora luzez eduki ninduten aduanan, Euskal Herriatik neramatzan jaki guztiak maletatan aurkitu zituzten arte. Kontrol bukaezin horretatik ateratakoan, eta nire ustekabe atseginerako, aireportuko korridorean zeuden oraindik Luis eta Emilio, nire zain, taxi berean Cambridgera abiatzeko. Egun horretan maila intelektual apartako pertsonak izanik, gizatasun handikoak zirela ere konturatu nintzen.

Luis M. Mansillaren trebetasuna, irakaskuntza, ikerketa eta praktika profesionala koherentzia izugarri konbinatzeko be-netan erakargarria egiten zitzaidan, eta udaberri horretako harreman akademiko eta pertsonalak askoz ere ageriago egin zuen. Horregatik, tesiaren idazkera bukatu nuenean, epaimahairen parte izateko ez zitzaidan Luis M. Mansilla baino hautagai hobegorik bururatu. Eta haren gertutasuna buruan izanda, xamurra egin zitzaidan gonbidatzea.

2012ko otsailaren 22an Luis M. Mansilla bat-batean hil zen Bartzelonan, bihotzekoak jota, inork sumatu gabe, Enric Mirallesen liburu baten aurkezpenean egon ondoren, 52 urte besterik ez zituela. Haren bat-bateko heriotzak hutsune nabaria utzi du; haren lana denboran laburra izanik, guztiz eraginkorra izan baita Espainiako eta munduko arkitekturaren. Rafael Moneoren bulegoan hamar urtetan lan egin ondoren, bertan ezagututako Emilio Tuñónek bikote profesionala osatu zuen. Bi hamarkadatan zehar ahobatezko sariak jaso dituzten eraikin publiko bikainak osatu dituzte Espainiako lurraldeetan, globalizazioaren indarrarekin nola nabigatu daitekeen erakutsiz. Zamorako Arkeologia eta Arte Ederrak, Castelloko Arte Ederrak, Leongo Arte Garaikidea, eta oraindik eraikuntzan dagoen Madrilgo Kolekzio Errealen lau museok adibidez, lege eta mugaketa garbi batzuekin hasirik, edozein proiektutan kreatibitateko leku handia egon daitekeela adierazten dute inork baino argiago. Caceresen alde zaharrea ireki berria den Atrio jatetxe eta hotela, edota Madrilen garai bateko Aguila Garagardoen Fabrika egin zuten liburutegi eta artxiboan, ondare historikoan aritzeko era garbi baten erakusle dira, iraganaren eta etorkizunaren artean suertatu daitekeen elkarriketa positibo bat agertuz.

Dena den, arkitektura-praktikaz gain, ikertzaile eta idazle sutua zen Luis M. Mansilla, ziur aski Erromako Espainiako Akademian bekadun bezala iragan zuen denboran garatu zuen interesaren ondorioz. Bertan historian zehar arkitekto nagusiek egin zituzten ibilbideak aztertu zituen, hango monumentu eta paisaietan, eta horren guztiaren ondorioa *Apuntes de Viaje al Interior del Tiempo* bere doktore-tesia izan zen. Horretaz gain, Madrilgo Goi Eskola Teknikoan 25 urtez aritu zen irakasle, Harvard eta Princetonen mailako eskoletako irakaskuntzarekin ere konbinatuz, baina bere betiko eskolako klaseak inoiz utzi gabe.

Joan den maiatzaren 8an Madrilgo Arkitektura Goi Eskola Teknikoan omenaldi bero bat egin zitzaion. Goizean, areto nagusian, Luis M. Mansillak arkitekto bezala garatu zuen ekintza



Lyonel Feininger
Diabolo Player (Diabolo-jokalaria)
Grafia paper gainean
15,24 x 10,48 cm

Harvard Art Museum/Busch-Reisinger Museum,
Julia Feininger-en oparia
©President and Fellows of Harvard College

bakoitzak duen baikortasun sendoa azpimarratu zuten, besteen artean, Sarah Whiting, Stan Allen, Luis Rojo, Iñaki Abalos, Luis Fernández-Galiano eta Rafael Moneo irakasleek; hark irakatsi zigun bezala, edozein proiektutan doitasunerako eta askatasunerako espazioa egon daitekeela gogoraraziz. Arratsaldean, goizeko ospakizun akademikoaren formaltasuna alde batera utzita eta Luis eta Emiliok gelara igo baino lehen zeukaten ohiturari jarraipena emateko, taberna dagoen pabiloi berrian eta guztiok *gin-tonic* batzuk edaten genituen bitartean, ikasleen artean kolektiboki egindako liburua banatu zen: *Lo que aprendí del profesor Luis M. Mansilla/ What I learnt from Professor Luis M. Mansilla* (Fundación Arquia Caja de Arquitectos, Madril, 2012). Modu batean edo bestean haren ikasleak izan garenok jaso genituen berrogeita zortzi irakaspen baliotsuez osatuta dago liburua, ikaspenok ahalik eta zabalaren transmitzeko intentzioarekin. Nik neuk, orain dela sei urte aurkeztutako tesian Luis M. Mansillak egindako ekarpena egun horretako oroipen baliotsuetako bat bezala gordetzen dut nire memorian. Hortaz, hemen partekatzen dut nire kontribuzio txikiaren itzulpena.

Mugimendu-eremuak

Doktore-tesien aurkezpenetan kurtsokideez gain, gaien derrigorrean ikasiak ez diren senide eta betiko adiskideek laguntzen dute sarritan doktoregaia. Horregatik, gehienetan, azken hauek, izugarritzko ahaleginak egin behar dituzte hariari jarraitu ahal izateko, eta aurkezpen sintetiko baten ondoren epaimahaia aztertzen duen lanaren benetako zentzua eta ekarpena ulertzeko. Nire kasuan, Luis M. Mansilla tesiaren epaimahaian izateko, eta honek egindako lan akademikoaren interpretazio guztiz bizi eta xume bat entzuteko, ohorea izan nuen. Luis M. Mansilla tesiaren epaimahaian izateko ohorea izan bainuen. Tesiaren irakurketatik atera eta lagunek eta senitartekoek bat egiten zuten: “Niri gehien atsegin izan zaidana ile gorri-horiduna da”. Izan ere, M. Mansilla irakasleak gai korapilatsuak modu samurrean azaltzeko —edozein argudiatze intelektual bizitzara gerturatzeko— ezohizko gaitasuna zeukan.

Azaldutako argumentuak denok ezagutzen dugun eremu batera hurbildu nahian, tesia, funtsean, “proiektuaren eta gizartearen arteko lotura eratze moduaren azterketa bat”

zela esan zuen. Tesiak, era oso garbi batean, arkitektoentzat guztiz oinarrizkoa den gai bat ardazten zuela, “pentsamenduak materia bihurtzen diren momentua”. Eta lan akademiko horren balio nagusia, arkitektoak —proiektuen estrategien bidez eta besteen alde— norberari uko egiteko ahalmena duela aditzera ematea zela, eztabaida estilistikoek urrun gelditzen den modernitatearen ondarearen hausnarketa baten bidez.

“Estrategia eratze-baliabide bat da, baita ikuspen-tresna bat ere”, argitzen zuen. “Axola duena ez da zein izan den estrategia, baizik eta existitzen dela; eta norbera mugitzen den lurraldea mugatzeko fakultatea duela. Zeren oso mugatua dagoen lurralde baten barnean, lan egiteko askatasun handia gelditzen da oraindik arkitekturari, eta ahalmen hori, arkitekturak duen paradoxarik erakargarrienetako bat da... Estrategiak ideiak gauzatzeko, eta igortzeko, eredu bat eskaintzen du. Baina igorri ahal izateko, gizartearen gurari, kezka, eta irriekin erlaziozaturik egon behar da... Arkitekturak ez du benetan existitzen, harik eta guk geuk gure obsesio pertsonalei eta gizartearen beharrei forma bera emateko ahalmena aurkitzen dugun arte. Gure artean bare geldi ezin daitekeen *diabolo* antzerako bat da, batzuen eta besteen interes pertsonalak forma horretan topo egin dezaketen elkarrekiko puntu bateragarria bilatzen duen *diabolo* bat...”

Kritika baliotsu honetatik, Luis M. Mansillaren inteligentzia, ikerketa akademiko oso baten ekarpena irudiko forma batean zehazteko gaitasuna harritu ninduen gehien. Nahi eta nahi ez, arretatsua izan behar den tesiaren idazketaren garai nekettsua behin amaituta, horrelako ziurtasun eta hurbiltasunez, sorkuntza eta ikusmena bateratzen dituen —eta aldi berean askatasunari eta uko egiteari buruz hitz egiten duen— aldiberekotasuna eskatzen duen *diabolo* horri buruz entzun izatea, tesiaren aurkezpen egunean jaso nezakeen oparirik handienetako bat izan zen.



* Laura Martínez de Guereñu arkitekto doktorea eta Madrilko IE Arkitektura Eskolako irakaslea da.

* “Campos de Movimiento”, *Lo que aprendí del profesor Luis M. Mansilla/ What I learnt from Professor Luis M. Mansilla* (Fundación Arquia Caja de Arquitectos, Madril, 2012), 20–21. Doktorego-ikaslea. ETSAIN 2005–2006.

* Liburua Arquia Fundazioaren webgunean deskargatu daiteke dohainik.